

Otsaila
Febrero
2017

BIM

Antsoain Ansoáin



EGUBERRIETAKO MERKATARITZA KANPAINA

-ANTSOAIN IRAUNKORRAGOAREN ALDE-

Duela gutxi, Antsoaingo Udalak “Merkataritzaren Mahaia” izeneko kontsulta eta partaidetza organoa sortu du herriko merkataritza txikia bultzatzeko eta, era berean, Udalean erregistraturik dauden herriko merkataritza eta ostalaritza arloko elkarteek sektoreari buruz hartzen diren erabaki guztietan zuzenean parte har dezaten. Mahaiburuaz gain, udalean ordezkaritza duen alderdi bakoitzeko kide bat da mahaikide, eta Antsoaingo Merkataritza Elkartearen hiru ordezkari ere bai.

Hainbat ekimen jarri ditu abian; besteak beste, Eguberrietako kanpaina, bi zatitan banaturik. Batetik, bideo batek erakutsi nahi izan du zer-nolako aberastasuna eta oparotasuna dugun Antsoaingo merkataritzan eta ostalaritzan. Bestetik, zozketa bat antolatu da abenduaren 5etik urtarrilaren 5era beren borondatez parte hartu nahi izan duten denda eta establezimenduentzat.

Zozketa urtarrilaren 14an egin zen. Merkatarien Elkartearekin batera egindako lana nabarmendu eta eskertu nahi dugu. Elkarrekin, bestalde, egun horretan bertan, jende guztiarendako txokolate-jana eta jolas tradizionalak antolatu zituen.

CAMPAÑA NAVIDAD COMERCIO

-POR UN ANSOÁIN MÁS SOSTENIBLE-

El ayuntamiento de Ansoáin ha creado recientemente un órgano consultivo y participativo denominado “Mesa de Comercio” con la finalidad de trabajar para dar impulso al pequeño comercio local y hacer partícipe de manera activa de todas las decisiones que se tomen relacionadas con el sector a las asociaciones de comercio y hostelería del pueblo registradas en el ayuntamiento. Forman parte de dicha mesa, además del presidente, una persona miembro de cada partido con representación municipal y tres personas de la Asociación del Comercio de Ansoáin.

Entre las iniciativas puestas en marcha está la campaña de Navidad, que constaba de dos partes. La primera, un vídeo que pretende dar a conocer la riqueza y variedad del comercio y hostelería que tenemos en Ansoáin. La segunda, la organización de un sorteo en la que participaron todos los comercios y establecimientos que así lo quisieron del 5 de diciembre al 5 de enero.

El 14 de enero se hizo el sorteo. Queremos resaltar y agradecer el trabajo conjunto realizado con la Asociación de Comerciantes que por su parte realizaron juegos tradicionales y una chocolatada popular el mismo día.



Fotos cedidas por Begoña Dang*. Begoña Dang-ek utzitako argazkiak.

Argitaratzailea: Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Maria Olaiz, Arantxa Gamba, Marco Alvarez, Patxi Leuza, M^a Aranzazu Arias. **Erredatzailea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4500 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoain. **Consejo de Redacción:** Maria Olaiz, Arantxa Gamba, Marco Alvarez, Patxi Leuza, M^a Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. **Tirada:** 4500 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2017ko apirila – Próximo BIM: abril 2017)

ORDENANTZA FISKALAK

EZ DIRA IGOKO ZERGAK, EZTA TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK ERE

Joan den azaroan, 2017rako zergak, tasak eta prezio publikoak arautzeko Ordenantza Fiskalak onetsi ziren, eta urte berri honetan ez da igoko ez zergarik, ez tasarik, ez prezio publikorik. Bestalde, badira beste aldaketa nabarmen batzuk; adibidez, ostalaritzako terrazak herriko jaietan ezartzea aurreikusi da; bestalde, Udal Kirol Zerbitzuak Kode Etikoa ezarri nahi du, eta Udalaren edozein kirol jardueratan izena eman eta hartan aritzeko, jendeak Kode hori onartu beharko du; azkenik, pilotalekua eta kiroldegia utzi ahalko dira kirolaz bestelako ekitaldiak egiteko.

Gainera, 20. Ordenantza Fiskal berriak gizabanakoei eta taldeei udal materialak lagatzea eta udal zerbitzuak ematea arautuko du, bai eta horri dagozkion prezio publikoak ere. Horrela, udalaren material jakin bat Antsoaingo jende, entitate, elkarte eta taldeen zerbitzuan jarri nahi da, beti era antolatua eta arautua, eta kasuan kasuko Udal Zerbitzuaren begiradapean.



ORDENANTZAS FISCALES

NO HABRÁ SUBIDA DE IMPUESTOS, TASAS NI PRECIOS PÚBLICOS

En el mes de noviembre se aprobaron las Ordenanzas Fiscales que regulan los impuestos, tasas y precios públicos para el año 2017, que no contemplan subidas de impuestos, tasas ni precios públicos. Por otro lado, otras modificaciones reseñables son que se contempla la posibilidad de instalación de terrazas de hostelería para el periodo de fiestas locales, la aceptación por parte de las personas usuarias del Código Ético que el Servicio Municipal de Deportes pretende instaurar como norma básica de funcionamiento a la hora de inscribirse y desarrollar cualquier actividad deportiva municipal y que se permite la cesión del frontón y el Polideportivo para uso no deportivo.

Además, la ordenanza Fiscal nº 20, de nueva creación, regulará la cesión de materiales y prestación de servicios municipales a personas y colectivos y los precios públicos para su utilización. Se pretende poner al servicio de la ciudadanía, entidades, asociaciones y colectivos de Ansoáin la posibilidad de hacer uso de cierto material municipal, siempre de manera organizada y reglada y bajo supervisión del Servicio Municipal competente.

Además, la ordenanza Fiscal nº 20, de nueva creación, regulará la cesión de materiales y prestación de servicios municipales a personas y colectivos y los precios públicos para su utilización. Se pretende poner al servicio de la ciudadanía, entidades, asociaciones y colectivos de Ansoáin la posibilidad de hacer uso de cierto material municipal, siempre de manera organizada y reglada y bajo supervisión del Servicio Municipal competente.

UDALAREN LOKALEN ERABILERA HERRITARREN ELKARTEEI LAGATZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA BERRIA

Ordenantza berria abian da, eta xedea da irizpideak eta prozedura orokorra ezartzea udal lokalen erabilera lagatzeko, hala eskatzen duten elkartei; horrela, araudi honen bitartez, arauak eta bideak ezarri nahi dira Antsoaingo irabazi asmorik gabeko gizarte, kultur eta kirol arloko entitatei egoitza soziala edo toki bat emateko, beren jarduerak egin ditzaten. Gainera, leku horiek elkarteetako kideen bilguneak eta Antsoaingo bizilagun guztien erreferentzia guneak izatea nahi da. Helburua da gizartearen intereseko jarduerak sustatzea Antsoainen, Udalaren titulartasunekoak diren lokal eta ekipamenduen erabilera lagata borondatez eta doan. Ordenantza Udalaren webgunean duzu ikusgai: www.ansoain.es.

NUEVA ORDENANZA REGULADORA DE LA CESIÓN DE USO DE LOCALES MUNICIPALES A ASOCIACIONES CIUDADANAS

Esta nueva ordenanza, que ya está en marcha, tiene por objeto la fijación de los criterios y del procedimiento general a seguir en la cesión de uso de locales municipales a las asociaciones que lo soliciten, regulando y facilitando a dichas entidades sociales, culturales y deportivas sin ánimo de lucro de Ansoáin una sede social o un espacio donde puedan desarrollar sus actividades y suponga un punto de encuentro para sus miembros y de referencia para la ciudadanía antsoaíndarra en general. Se pretende promocionar así, con la cesión, voluntaria y gratuita del uso de locales y equipamientos que sean de titularidad municipal, la realización de actividades de interés social en Ansoáin. Puedes consultar la ordenanza en la página web del Ayuntamiento www.ansoain.es.

ANTSOAINGO UDAL MUSIKA ESKOLA

Abenduan, Haurren Abesbatza eta Talde Instrumentalen ikasleek, bi kontzertuekin gozatuaz gintuzten; eta Udaletxean, Bandak Errege Magoak hartu zituen. Martxoaren 15, 16 eta 17an, Antsoaingo Antzokian egongo diren entzunaldietan, talde instrumental txiki anitzekin disfrutatu ahal izango dugu.



ESCUELA DE MÚSICA MUNICIPAL DE ANSOÁIN

Los alumnos/as del Coro Infantil y de Agrupaciones instrumentales nos hicieron disfrutar con dos conciertos en diciembre; y la Banda recibió a los Reyes Magos en el Ayuntamiento. Los días 15, 16 y 17 de marzo podremos disfrutar de numerosos grupos instrumentales reducidos en las audiciones que tendrán lugar en el Teatro de Ansoáin.

ANTSOAINGO AURREKONTUAK 2017RAKO

Udalak 7.850.111,23 euroko aurrekontua onetsi du 2017rako; hau da, 2016an baino % 2 gehiago (152,678,23 euro). Aurreikuspenen arabera, funtzionamendu gastuak 7.631.040,23 euro izanen dira, eta diru-sarrera arruntak, berriz, 7.850.111,23 euro.

Ohi denez, gasturik handiena langileendako kontusailatara bideratuko da, 3.776.328,16 euro, hau da, aurrekontu guztiaren % 48, eta ondoren, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketara, 3.235.876,46 euro, hau da, aurrekontuaren % 41.

Langile gastuek % 5,6 egin dute gora, hainbat arrazoi direla medio: langileen mailan eta antzinatasunean izaniko doikuntzak; teknikari sozio-kultural komunitario baten lanpostu bat bete izana; ordezkapen gehiago aurreikusi izana mantentze-lan orokorretan, haur eskoletan naiz kirol instalazioetan; lan kontratudunendako laguntza familiarra onetsi izana; soldatak oro har % 1 igotzeko aurreikuspena; eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleendako bi hezitzaile lanpostu osatu izana haur eskolan.


Aurreikuspenen arabera, finantza-karga 114,221 euro izanen da; beraz, aurrekontuaren % 1,46. lazko hasierako aurrekontuaren aldean, % 13 egin du behera.

Epe luzerako zor bizia 993.766,20 eurokoa zen 2016/01/01ean, bi maileguk eraginda. 2016an, bestalde, mailegu horietako bat amortizatu da guztiz, eta ez da aurreikusi era horretako kontratazio gehiagorik egitea.

Bestalde, zergak, tasak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak onetsi ondoren, ez dago aurreikusia tributuen bidezko diru-sarrerak igotzea 2017rako, eta 4.638.161,61 euro izanen dira, hau da, aurrekontu guztiaren % 59.

Transferentzia arruntak 3.202.647,62 euro dira, aurrekontuaren % 40,78; horietatik, 2.565.500 euro Udalek Nafarroako zergetan duten partaidetzaren funtsekoak izanen dira (gastu arruntetarako).

Aldi berean adierazi behar da aurrekontuek bete egiten dutela aurrekontuaren egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak ezarritakoa, gastuaren aurrekontu egonkortasunari, gastuaren arauari eta finantza iraunkortasunari dagokienez.



PRESUPUESTOS DE ANSOÁIN PARA EL 2017

Para este próximo ejercicio 2017 se ha aprobado un presupuesto que asciende a 7.850.111,23 euros, que experimenta un aumento en relación al de 2016 de 152,678,23 euros, es decir, un 2% más. Los gastos de funcionamiento ascenderían a 7.631.040,23 euros, siendo los ingresos corrientes de 7.850.111,23 euros.

El mayor gasto se sigue situando en las partidas de personal, con una previsión de 3.776.328,16 euros, que re-

presenta el 48% del Presupuesto total y el capítulo de las compras de bienes corrientes y servicios, teniendo una previsión de 3.235.876,46 euros y representando el 41% del Presupuesto.

Los gastos de personal experimentan un incremento del 5,6%, principalmente por ajustes en el personal en cuanto a grado y antigüedad, la incorporación de un puesto de trabajo de técnico/a socio-cultural comunitario, la previsión de más sustituciones en mantenimiento general, escuela infantil e instalaciones deportivas, la incorporación de la ayuda familiar al personal laboral, con un año de retroactividad, la estimación de un 1% de incremento salarial general y la necesidad de dos puestos de trabajo de educador/a de necesidades especiales en la escuela infantil.

La carga financiera tiene una previsión de 114,221 euros, suponiendo el 1,46% del Presupuesto. En relación con el Presupuesto inicial del año anterior, experimenta una disminución del 13%.

La deuda viva a largo plazo a fecha 01/01/2016 ascendía a 993.766,20 euros, que corresponde a dos préstamos. Durante el ejercicio 2016 se ha terminado de amortizar completamente uno de ellos, no contemplándose nuevas contrataciones de esta naturaleza.

Respecto a los ingresos tributarios, que no se prevén aumentar para el ejercicio de 2017 tras la aprobación de las ordenanzas que regulan impuestos, tasas y precios públicos, suman 4.638.161,61 euros, representando el 59% del presupuesto total.

Las transferencias corrientes suman 3.202.647,62 euros, representado el 40,78% de Presupuestos, perteneciendo 2.565.500 de euros al fondo de participación en los impuestos de Navarra (para gastos corrientes).

Así mismo indicar que los presupuestos cumplen con lo que exige la Ley Orgánica 1/2012 de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera en los principios de estabilidad presupuestaria, Regla del Gasto y sostenibilidad financiera.


ELKARTE ETXEA, HERRIKO TALDEENTZAKO TOPALEKU BERRIA

Joan den iraileko osoko bilkuran, Udalak Antsoaingo osasun etxe zaharra zaharberritzea erabaki zuen, bertan **Elkarte Etxea** jartzeko; horretarako, aurrekontuetan aldaketa bat egin zen, aurreko urtetik gastu orokorretarako gelditutako dirua baliatuta. Herriko talde guztientzako topaleku berria izanen da, hau da, taldeak elkartzeko lekua beren jarduerak egin ditzaten; azken finean, aurrerapauso bat izanen da Antsoaingo gizartegintzan. Herriko talde guztientzat izanen da, eta horretarako, ordenantza berriak ezarritako baldintzak bete beharko dira: Udalaren lokalen erabilera herritarren elkartei lagatzea arautzen duen ordenantza, hain zuzen. Gela asko ditu eta gauza ugari egiteko aukera ematen du; beraz, egokia da era bateko zein besteko talde eta proiektuen beharrei erantzuteko.

Joan den irailaren 21ean, Tokiko Gobernu Batzarrak Zubigain enpresari esleitu zizkion zentro berria egiteko lanak, 95.412,88 eurotan. Prozedura negoziatuaren bidez egin da; hau da, lehendabizi, Antsoaingo Udalean jarduera ekonomikoan gaineko zerga ordaintzen duten enpresei egin zitzaizen parte hartzeko eta aurkezteko gonbitea. Tokia moldatzeko lanak urtarrelean hasi ziren.

Gaur egun, interesa agertu duten taldeak hizketan ari dira Udalarekin, zentroaren funtzionamenduari eta bizikidetzari buruzko oinarritzko irizpideak hitzartzeko.

NUEVO ESPACIO SOCIAL COMUNITARIO



En el pleno de septiembre se aprobó la rehabilitación del antiguo centro de salud de Ansoáin en un nuevo **Espacio Social Comunitario**, por medio de una modificación presupues-

taria cuya fuente de financiación es el remanente de tesorería para gastos generales. Este espacio estará abierto a todos los colectivos de Ansoáin que reúnan los requisitos marcados en la nueva **“Ordenanza reguladora de la cesión de uso de locales municipales a asociaciones ciudadanas”**. Es un local que por su característica de contar con muchas salas y por la diversidad de opciones que plantea pretende responder a las necesidades de diferentes colectivos y proyectos.

El pasado 21 de diciembre la Junta de Gobierno Local adjudicó las obras de este centro a la empresa Zubigain, por un importe de 95.412,88 euros. Esto ha sido a través de un procedimiento negociado, donde en primera instancia se invitó a participar y presentarse a empresas registradas como contribuyentes del IAE (impuesto de actividades económicas) en el Ayuntamiento de Ansoáin. En el mes de enero comenzaron las obras para acondicionar el local.

En la actualidad se está dando un debate entre los diferentes colectivos que han mostrado interés en este espacio y el ayuntamiento para acordar los criterios básicos de convivencia y funcionamiento del centro.

ANTSOAINGO GAZTELEKUA, HARROBI

Jardueraz betea dator otsaila. 3an, ostiralarekin, hirugarren “Zu Bai Artista” lehiaketa antolatu dugu, Antsoaingo antzokian, 19:00etan. Sarrerak www.teatroansoain.es helbidean, 012 zenbakian eta antzokiko leihatilan 17:30etik aurrera eskuratu ahaliko dira. Etor zaitezte, pasa den urtean maila handiko artistek parte hartu zuten eta!

Inauteriak badatoz eta, horrekin batera, maskara eta osagarri tailerrak egingen ditugu. Gure mozorroa gure kabuz egin dezagun!

Bostgarren urtez, Emakumeen Nazioarteko Egunean, martxoaren 8an, argazki lehiaketa antolatu dugu, egun hori ospatzeko. Oinarriak Udaletxeko web orrian eta Harrobin aurkituko dituzue, baina argazkiak aurkezteko epea otsailaren 6tik 26ra arte irekia egonen dela aurreratzen dizuegu. Sariak izanen dira!

Jardueren informazioa jaso nahi baduzue, Harrobitik pasa zaitezte edo gurekin kontaktuan jarri, 948 142 352 telefono zenbakian edo helbide elektroniko honetara idatzita: casajuventud@ansoain.es.



Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoáin

CASA DE LA JUVENTUD, HARROBI

Febrero viene cargado de actividades. El viernes 3 hemos organizado la tercera edición del “Tú Sí Que Molas”, a las 19:00 en el Teatro de Ansoáin. Las entradas están disponibles en www.teatroansoain.es, llamando al 012 y en la taquilla del teatro a partir de las 17:30. No perdáis la oportunidad de verlo, el año pasado hubo mucho nivel.

Con la llegada de los carnavales, ofreceremos talleres de elaboración de máscaras y complementos ¡Hagamos nuestros disfraces!

También por quinto año consecutivo, podéis participar en el Certamen de Fotografías conmemorativas del Día Internacional de las Mujeres, 8 de marzo. Las bases las encontraréis en Harrobi y en la Web del Ayuntamiento. Las fechas para presentar las fotografías son del 6 al 26 de febrero. ¡Habrás premios!

Para obtener más información de las actividades que se van a realizar, pásate por Harrobi o ponte en contacto por teléfono en el número 948 142 352 o por correo electrónico en la dirección casajuventud@ansoain.es.

21 TOKIKO AGENDA/ BERDINTASUN ZERBITZUA

MARTXOA, OROITZAPENEZKO EGUNEZ BETEA

Martxoa hilabete berezia da, udaberria ate joka etorriko baita eta, horrez gain, egun asko oroitzapenezko egunak direlako nazioartean. Eta ziurrenera, baten batek galdera hau egingen dio bere buruari: Zertarako balio dute “nazioarteko egun” horiek? Eta zertarako horrenbeste? Honatx Nazio Batuen erantzuna:

“Egun horien bidez jendea sentsibilizatu, kontzientziatu nahi dugu, atentzioa eman eta adierazi badagoela konpondu gabeko arazo bat, kontu garrantzitsu bat moldatu gabe gizarteetan; horrela, sentsibilizazioaren bidez, gure xedea da gobernuak eta estatuek ekin eta neurriak har ditzatela, edota herritarrek beren ordezkariak behartu ditzatela neurriak hartzeraz”.

Hona hemen egunak; orain zuri dagokizu gogoeta egitea egun horietako bakoitzean betetzen duzun eginkizunaz:

Martxoak 1, Bazterkeriaren kontrako eguna (HIESa)

Martxoak 3, Basa bizitzaren eguna

Martxoak 8, Emakumearen eguna

Martxoak 20, Zoriontasunaren eguna

Martxoak 21, Arraza diskriminazioa ezabatzeke eguna;

Poesiaren eguna; Down Syndromearen eguna eta Basoen eguna.

Martxoak 22, Uraren eguna

Martxoak 23, Meteorologiaren eguna

Martxoak 24, Biktimen duintasun eta Giza Eskubideen bortxaketari buruzko Egitarako Eskubidearen eguna

Martxoak 25, Atxilotu eta Desagertuei elkartasuna

agertzeko eguna, eta Esklabotzaren eta Esklabo Salerosketaren biktimak gogoan izateko eguna.

Hitzak ala ekintzak? BERDINTASUNA oraindik ez dugu gauzatu: FEMINISMOA da bidea.

Antsoaingo Udalak martxoaren 8ko eguna baliatuko du emakumeen eskubideekin duen konpromisoa antsoaindarren aurrean berresteko. Gainera, informazio aldizkari honen bidez, dei egin nahi die herriko emakume guztiei egun horren inguruan antolatuko diren jardueren prestaketan parte hartzeko. Argibideak jasotzeko eta izena emateko, idatzi e-mail bat Berdintasun Zerbitzura (igualdad@ansoain.es) edo deitu 948 38 40 48 zenbakira.

AGENDA LOCAL 21 / SERVICIO DE IGUALDAD

MARZO, UN MES DE CONMEMORACIONES

Marzo es un mes especial no solo porque con él llega la primavera, sino porque también está plagado de conmemoraciones internacionales. Habrá gente que se pregunte ¿para qué sirven tantos “Día Internacional de...”?. Esta es la respuesta de Naciones Unidas:

“Sensibilizar, concienciar, llamar la atención, señalar que existe un problema sin resolver, un asunto importante y pendiente en las sociedades para que, a través de esa sensibilización, los gobiernos y los estados actúen y tomen medidas **o para que la ciudadanía las exija** a sus representantes”.

Ahora podrás reflexionar cuál es tu papel en cada una de estas conmemoraciones:

1 de marzo día contra la discriminación (SIDA)

3 de marzo día de la vida silvestre

8 de marzo día de la Mujer

20 de marzo día de la Felicidad

21 de marzo días de para la eliminación de la discriminación racial; día de la Poesía; día del Síndrome de Down y día de los Bosques.

22 de marzo día del agua

23 de marzo día Meteorológico

24 de marzo día del derecho a la verdad en las violaciones de los Derechos Humanos y de la Dignidad de las Víctimas

25 de marzo día de Solidaridad con Detenidos y Desaparecidos y día de Recuerdo de las víctimas de la Esclavitud y la Trata de Esclavos.

¿Dices o haces? La IGUALDAD aún no es un hecho: el FEMINISMO es el camino.

El Ayuntamiento de Ansoáin va a aprovechar la conmemoración internacional del próximo 8 de marzo para reafirmar ante la vecindad ansointarra su compromiso con los derechos de las mujeres y aprovecha este boletín informativo para animar a todas las mujeres del pueblo a participar en la organización de las distintas actividades que se programarán en torno a ese día. Para recibir más información y apuntarse se puede escribir un mail al Servicio de Igualdad, igualdad@ansoain.es, o llamar al 948 38 40 48.



UDAL EUSKARA ZERBITZUA

Ikerketa, berrikuntza eta garapena dira D ereduaren irakaskuntza eleanitzaren oinarria. Horri esker, milaka ikasleren eta familien beharrak egunerokoan asetzen dituen eredu eraginkorra lortzen da. Hemengo bi hizkuntzak irakasteaz gain, atzerritarretarako oinarri sendoa ematen duen eredu da; eta horrek guztiak eguneroko bizitzan ate asko zabaltzen ditu. Gehitu egiten du D ereduak.

Hezkuntzaren kalitatea, efikazia eta neska-mutilen ongizatea dira D ereduaren lehentasunak, familien ongizatearekin batera; eta familiak horiek askotarikoak dira, baita linguistikoki ere.

Gaztelania bakarrik hitz egiten duten familiak aurkitzen ditugu, jatorri atzerritarreko hizkuntzak dauzkatenak... Horiek guztiak aproposak eta ohikoak dira D ereduari, Nafarroako lurralde osoan. D ereduari beti gehitzen dela ulertzen duten familiak dira. Guraso zein ikasleek efizientzia eta hizkuntzen ezagutza irabaztea lortzen dutela ulertzen duten familiak dira eredu berritzaile hau aukeratzeko dutenak.

Zorionak, beraz, egindako hautuagatik eta eskerrik asko seme-alabei eman diguzuen aukerarengatik!



SERVICIO DE EUSKERA MUNICIPAL

La investigación, la innovación y el desarrollo son la base la enseñanza multilingüe del modelo D. Permiten que este sea un modelo eficaz mediante el que miles de estudiantes y familias satisfacen sus necesidades día a día. Es el modelo que enseña los dos idiomas propios del lugar y ofrece una buena base a las extranjeras, haciendo que se abran muchas puertas

en el día a día. El modelo D suma.

Las prioridades de este modelo son la calidad de la educación, la eficacia así como el bienestar de su alumnado, y las familias; familias que son muy diversas, también lingüísticamente hablando.

Encontramos familias en las que se habla únicamente castellano, idiomas de origen extranjero... Todas esas familias son idóneas y habituales en el modelo D, en todo el territorio de Navarra. Se trata de familias que lo eligen porque entienden que en este modelo innovador tanto padres, madres como alumnado logran ganar en eficiencia y conocimiento de idiomas, logran siempre sumar.

Por esa razón, ¡felicidades por elegirlo y gracias por la oportunidad que nos habéis brindado a hijos e hijas!

EZKABA IKASTETXE PUBLIKOAN

Otsailaren 13tik 17ra aurrematriculazio epea zabalik egongo da. Epe horretan, 2017an hiru urte beteko dituzten haurrentzat ikastetxe bat aukeratu beharko dute gurasoek. Ezkaba Ikastetxe Publikoa Antsoaingo haurrentzat aukerarik hurbilena da. D ereduko zentrua izateagatik, euskarazko irakaskuntza ematen da. Antsoain herriko bizitza kulturalarean erabat integraturik dago eta herri dinamikan erreferentziatzeko eragilea da. Eskolari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzue, gure webgunean sar zaitezke.

<http://ezkabaikastetxea.educacion.navarra.es/>



COLEGIO PÚBLICO EZKABA

Del 13 al 17 de febrero se abrirá el plazo de prematriculación para el próximo curso escolar. En dicho plazo los padres y madres deberán elegir el centro educativo para su hijo/a que cumpla tres años en 2017. El Colegio Público Ezkaba es la opción más cercana para los niños y niñas de Ansoáin. Por ser un centro de

modelo D, se imparte en euskara principalmente. La escuela está totalmente integrada en la vida cultural del pueblo y es un agente cultural de referencia en Ansoáin. Si queréis más información sobre nuestro centro podéis visitar nuestra web en el siguiente enlace:

<http://ezkabaikastetxea.educacion.navarra.es/>

www.ansoain.es

Sare sozialetan jarraitu



www.ansoain.es

Síguenos en las redes sociales

BA AL DAKIZU...?

...Udaltzaingoaren betebeharrak Gabonetako desfileetan ez dela trafiko lanak burutzea bakarrik?

Herriko zenbait tokitan, leku-erreserben ardura du Udaltzaingoak; kaleak hesi eta oharren bidez seinaleztatzen ditu; hutsik geratu behar diren kaleetan dauden autoen jabeak aurkitzeaz aparte, kentzeko abisua ematen die bizilagun horiei; udal egoitzak irekitzen, ixten eta kontrolatzen ditu, karrozen muntaketa egunetan; desfileetan, herritarrei arreta ematen diete udaltzainek, eta bai desfileen aurretik, bai ondoren, karrozei laguntzen diete ibilbidean, trafiko istripuak gertatu ez daitezen etab.



¿SABÍAS QUE...?

¿...La labor de Policía Municipal durante los diferentes desfiles navideños va más allá de la realización de gestiones de control de tráfico durante estos recorridos?

Se realizan reservas de espacio en diferentes puntos de la localidad; se señalizan las calles con letreros y vallas; se localiza y comunica a personas propietarias de vehículos estacionados para que los retiren en aquellos lugares que deben quedar despejados; se ejercen labores de apertura, cierre y custodia de edificios municipales durante los montajes y desmontajes de las carrozas; se realizan labores de atención ciudadana durante los eventos; se efectúan acompañamientos a las carrozas para evitar incidencias en el tráfico antes, durante y después de los recorridos oficiales; etc.

UDALAREN KIROL ZERBITZU BERRIA

Abian da Udal Kirol Zerbitzu berria, hau da, Gazte Berriak Patronatu iraungiaren ordezkaria. Zerbitzua arautzen duen erregelamendua onetsi ondoren, haur eta gazteei Antsoainen eskaintzen zaizkien kirol guztiak daude zerbitzuan sarturik; halakorik ez zegoen Patronatuan. Erakunde berria abian jartzearekin batera, Kode Etikoa berria onetsi da, erakundea arautzeko. Kodeak eragile guztiak lotuko ditu, hau da, kirol entitateak, entitateetako teknikariak eta zuzendariak, Udala bera, familiak eta erabiltzaileak. Tresna berria hemendik gutxira aurkeztuko da jendaurrean.



NUEVO SERVICIO MUNICIPAL DE DEPORTES

Ya está en marcha el nuevo Servicio Municipal de Deportes que viene a sustituir al extinto Patronato Gazte Berriak. A partir de la aprobación del reglamento que lo regula, en el citado nuevo servicio se aglutinan todas las disciplinas deportivas que se ofertan en Ansoáin a la población infantil y juvenil, algo que no sucedía en el caso del antiguo Patronato. A partir de la puesta en marcha del nuevo ente, se ha aprobado también el nuevo Código Ético que lo va a regular y que involucra tanto a entidades deportivas, personal técnico de las mismas y directivo como al propio Ayuntamiento, a las familias y a las personas usuarias. Esta nueva herramienta será presentada en sociedad próximamente.

RAFAEL ALBERTI PLAZA ETA INGURUAK HOBETZEKO LANAK

luz, hainbat lan egin ziren Rafael Alberti plaza berritzeko. Adibidez, Noain Anaien kalea Sakanpea pasealekurantz gurutzatzen duen oinezkoendako pasabidea hobetu da, autoen abiadura moteltzeko, eta halaber, pasabidea margotu da jendeak hobeki ikus dezan. Bestalde, kendu egin dira plaza erdian tarteen artean zeuden zutoinak; halaber, iparraldean zegoen zuhaitz kopurua murriztu da espazioa hobeki antolatzeko, eta argi zahar guztiak kendu eta gaur egungoak jarri dira, gehiago argitzen baitute, eta energia gutxiago gastatu. Antsoaingo beste plaza eta parke batzuetan ere antzeko lanak egingen dira 2017an zehar.



MEJORAS EN LA PLAZA RAFAEL ALBERTI Y SU ENTORNO

Durante el pasado año se llevaron a cabo varias reformas en la plaza Rafael Alberti. Una de ellas ha consistido en la mejora del paso peatonal que cruza la calle Hermanos Noain hacia el paseo Sakanpea para disminuir la velocidad de los coches que lo atraviesan y la mejora de la visibilización del propio paso a través del pintado. Por otro lado, se han eliminado las pilonas de separación entre espacios que existían en el centro de la plaza, se ha reducido el número de árboles que había en la parte norte para una mejor racionalización del espacio y se ha renovado toda la iluminación sustituyendo los antiguos equipos por materiales actuales que tienen mayor capacidad lumínica con un menor consumo energético, una inversión que se hará extensiva a otras plazas y parques de Ansoáin a lo largo de este año 2017.

LIBURUTEGIKO BERRITASUNAK

Berriketan aurrekontu bat onetsi da liburutegiko wifi sareak berritzeko, sareak zerbitzu hobea eman diezaien huraxe erabiltzen dutenei. Bestalde, 2017 honetatik aurrera, liburutegia ez da azaroaren 29an itxita egonen, hau da, San Saturnino egunean, Antsoaingo jaiegun ofizialean baizik; hots, iraileko hirugarren ostiralean, herriko festak egiten direnean.



NOVEDADES EN LA BIBLIOTECA

Recientemente se ha aprobado el presupuesto para la reforma de la red wifi que da cobertura a la biblioteca, con el objetivo de mejorar las prestaciones de la citada red para las personas usuarias de la misma. Por otro lado, a partir de este año en curso, la biblioteca dejará de cerrar en 29 de noviembre, día de San Saturnino y lo hará en el festivo oficial de Ansoáin, que es el tercer viernes de septiembre, coincidiendo con las fiestas.

Agenda

3

VIERNES OSTIRALA

"TÚ SÍ QUE MOLAS!" "ZU BAI ARTISTA!"

90 min.

Teatro Ansoáin - 19:00 h.

Antsoaingo Antzokia - 19:00etan

NAVARRA TELEBISTA



Concurso abierto a toda la población a partir de 12 años. Muestra tus habilidades artísticas en el Teatro de Ansoáin y accede al premio de 150 € y 100€. Inscripciones del 2 al 29 de enero (ambos incluidos) en la Casa de la Juventud de Ansoáin, Harrobi. **Bases del concurso en la Casa de la Juventud de Ansoáin, Harrobi:** Calle Ezkaba 4. Teléfono: 948.14.23.52 - E-mail: casajuventud@ansoain.es **Búscalas en facebook:** PIJ Harrobi: Harrobi Casa de la Juventud de Ansoain y en la página web del Ayuntamiento de Ansoain: www.ansoain.es

Lehiaketa 12 urtetik aurrerako biztaleri guztiari zuzenduta dago. Zure gaitasun artistikoak erakuts itzazu Antsoaingo Antzokian. 150 eta 100 euroko saria irabazi dezakezu. Izen-emateak urtarilaren 2tik - 29ra Antsoaingo Gaztelekuan, Harrobi. **Lehiaketaren oinarriak Antsoaingo Gaztelekuan, Harrobi:** Ezkaba kalea 4. Telefonoa: 94814.23.52 - Email: casajuventud@ansoain.es **Aurki itzazu facebooken:** PIJ Harrobi: Harrobi Casa de la Juventud de Ansoain eta web orrian: www.ansoain.es

CONCURSO
JUVENIL
GAZTE LEHIAKETAPrecio Prezioa:
2,00 €

TOCOS LOS
PÚBLICOS
JENDE
GUZTIARENZAT

4

SÁBADO LARUNBATA

SANTA ÁGUEDA / AGATE DEUNA

PROGRAMA DE ACTOS

A LAS 18:00 HORAS: Chocolatada en la Sociedad Saraspea con la compañía de Antsoainen Kantuz (Plaza Rafael Alberti, 4 - bajo)

A CONTINUACIÓN: Salida de los coros desde la Sociedad Saraspea y recorrido por Ansoáin

EGITARAU

18:00ETAN: Txokolatete jatea Saraspea Elkartearen Antsoainen Kantuz-en laguntzaz (Rafael Alberti plaza, 4 - behe)

ONDOREN: Saraspea Elkartetik irten eta kantaldia Antsoainen zehar

"Zorion etxe hontako Denoi / oles egitera gatoz / aterik ate ohitura zaharra / aurtan berritzeko asmoz / Ez gaude oso aberats diruz / ezta ere oinetakoz / baina ezta sano gabiltza / ta kanta nahi dugu gogoz."

5

DOMINGO IGANDEA

"UN CUENTO DE PIRATAS"

55 min.

Teatro Ansoáin - 18:00 h.

Antsoaingo Antzokia - 18:00etan

ILUNA TEATRO (NAVARRA / NAFARROA)



¡Chas! Ana Montaña, se cayó al suelo desde el sofá cuando un pirata salió del televisor y se plantó en su salón. "Ayúdame, unos piratas me están persiguiendo". ¿Quieres ayudar a Ana a encontrar el mayor tesoro escondido del mundo? Piratas buenos y malos, catalejos, brújulas, peligros, mapa del tesoro, canciones, sorpresas y sobretodo muchísima imaginación.

Txas! Ana sofatik lurrera erori zen, pirata bat etxeko telebistatik atera eta egongela erdian kokatu zenean. "Lagundu, pirata batzuke nire atzetik datoz ni harrapatu nahian" Lagundu nahi al diozu Anari munduko altxor ezkuturik handiena aurkitzen? Pirata onak eta gaiztoak, largabistak, ipar-orratzak, arriskuak, altxor-mapak, abestiak, ustekabeak eta, batez ere, irudimen handi-handia.

CUENTO MUSICAL
IPUIN MUSIHALA

Venta Anticipada
Aldez Aurreko
Salmenta: 4,50 €

Venta en Taquilla
Salmenta
Leihatilan: 6,00 €

A PARTIR DE 3
AÑOS

3 URTETIK
GORAHOENTAT

SUBVENCIONA/DIRUEMAILEA:



PROGRAMA ARTE Y CULTURA 2016
2016ko ARTE ETA KULTURA PROGRAMAZIOA

10

VIERNES OSTIRALA

Concierto benéfico a favor del BANCO DE ALIMENTOS / Ongintzazko kontzertua ELIKAGAIEN BANKUAREN alde

120 min.

Teatro Ansoáin - 19:30 h.
Antsoaingo Antzokia - 19:30etanASOCIACIÓN DE GUITARRAS DE ANSOAIN
(ANSOÁIN / ANTSOAIN)

¡Festival Solidario a favor del Banco de Alimentos de Ansoáin-Antsoain y para la lucha contra la Pobreza Energética, con la participación de los grupos: HUMO. Pop-rock 60 -70's - PURO RELAJO. Rancheras y más en euskera - MESTEÑO. Americana music en acústico.

Elkartasunezko jaialdia Antsoaingo Elikagaien bankuaren alde, eta pobrezia energetikoaren kontra borrokatzeko. Honatx talde parte-hartzaileak: HUMO. 60 -70. Urteetako rocka - PURO RELAJO. Rantxerak eta beste euskaraz - MESTEÑO. Americana music, akustikoa.

JUVENIL — ADULTO
GAZTE ETA
HELDUENTZAT

Venta Anticipada
Aldez Aurreko
Salmenta: 4,00 €

Venta en Taquilla
Salmenta
Leihatilan: 5,00 €

11

SÁBADO LARUNBATA

ANTSOAINEN KANTUZ

Plaza Lapurbide - 12:00 h.
Lapurbide plazatik - 12:00etan

Antsoainen Kantuz desea ampliar el grupo. Por eso motivo invita a toda persona que quiera participar con el grupo. Los ensayos son los jueves a las 19:30 en el Centro Cívico de Ansoáin.

Antsoainen Kantuz jende bila dabil. Hori dela eta, taldea zabalik dago hartan parte hartu nahi duen jende guztiarentzat. Entseguak ostegunetan egiten dira, 19:30ean, Antsoaingo Gizarte Etxean.

FAMILIAR
FAMILIARENTZAT

12

DOMINGO IGANDEA

"LAS AVENTURAS DE ANA MONTAÑA"

55 min.

Teatro Ansoáin - 18:00 h.
Antsoaingo Antzokia - 18:00etan

ILUNA TEATRO (NAVARRA / NAFARROA)



¡Cuando Ana Montaña está haciendo la tarea en casa, recibe la visita del Profesor Salado. Salado trata de poner a salvo a Ana, porque el malvado Doctor Tostón esta tratando de quitar la risa a todos los niños. El doctor Tostón se ha vuelto loco, porque esta vez no trata de conseguir un tesoro normal. ¡No! El y su patoso ayudante Risitas, ¡tratan de alcanzar la luna! ¡Ayuda a Ana y al profesor Salado en esta aventura de mucha imaginación y muchísimas risas!

Ana Montaña etxean eskolako lanak egiten ari denean, Salado irakaslea bisitan doakio. Salado Ana babesten saiatzen da, Toston doktore gaiztoa haur guztiei barrea kendu nahian dabilelako. Toston doktorea erotu da, oraingo honetan ez baita saiatzen ari ohiko altxor bat lortzen, ez horixe! Doktoreak eta haren laguntzaile traketsak (Risitas) nora eta ilargira joan nahi dute! Lagundu Anari eta Salado doktoareari irudimen handiko abentura honetan! Irriz blaitua baitago.

A PARTIR DE 3
AÑOS
3 URTETIH
GORAHOENTZATCUENTO MUSICAL
IPUIN MUSIHALA

Venta Anticipada
Aldez Aurreko
Salmenta: 4,50 €

Venta en Taquilla
Salmenta
Leihatilan: 6,00 €

VENTA DE ENTRADAS ■ SARREREN SALMENTA

TAQUILLA DEL TEATRO. Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo
ANTZOKIKO LEIHATILAN. Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita

TELÉFONO 012 (Desde fuera de Navarra 948 012 012). Las entradas se recogen en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo
012 TELEFONOAN (Nafarroatik kanpo 948 012 012). Sarrerak hartzen dira ikuskizun bakoitzaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita

INTERNET - www.teatroansoain.es VENTA DE ENTRADAS. Con el justificante de compra por internet pasa directamente a la sala
INTERNET - www.teatroansoain.es SARREREN SALMENTA. Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu, zuzenean aretora pasa zaitez

MIÉRCOLES ASTEAZKENA

CONFERENCIA A CARGO DEL
SEXÓLOGO IÑAKI GOÑI / IÑAKI
GOÑI SEXOLOGOAREN HITZALDIA

(ASOCIACIÓN CHRYSALLIS)



TRANSEXUALIDAD INFANTIL: COMPRENDER PARA PODER ACOMPAÑAR. Con testimonios de dos familias de la asociación. La transexualidad es la condición por la que el sexo de una persona (su sexo sentido) no corresponde con el sexo que se le asignó al nacer. A día de hoy el conocimiento ha avanzado lo suficiente para entender que esto no es ni una enfermedad, ni un trastorno; que es una variante más de la diversidad humana. Todas y todos tenemos rasgos de ambos sexos. Y si bien no es lo más frecuente, la sexuación cerebral puede darse en una dirección, y la sexuación genital en otra. Es el caso de las niñas con pene y los niños con vulva.

HAUR TRANSEXUALITATEA: COMPRENDER PARA PODER ACOMPAÑAR / ULERTU, LAGUNDU AHAL IZATEKO TRANSEXUALITATEA. Elkarteko bi familiaren lekukotasunarekin. Transexualitateaz mintzo gara pertsona baten sexua (sentitzen duen sexua) ez dagokionean jaiotzean eman zitzaion sexuari. Gaur egun, ezagutzen aurrerapauso handiak eman dira, eta esan behar da hori ez dela, ez gaixotasun bat, ez nahaste bat, giza dibertsitatearen beste aldaera bat baizik. Denok ditugu bi sexuen ezaugarriak. Eta maiz ikusten ez bada ere, garunaren sexuazioa norabide batean joan daiteke, eta genitalen sexuazioa, beste batean. Horixe da zakila duten neskatuen eta bulba duten mutikoen kasua.

Espacio Cultural. Ctra. Ansoáin 4Bis - 19:00 h.
"Kulturgunea". Antsoain errepidea 4Bis - 19:00etan

ENTRADA LIBRE
SARRERA DOAN

TEATRO HUMOR
HUMOREA
ANTZERKIA

Venta Anticipada
Aldez Aurreko
Salmenta: 8,00 €

Venta en Taquilla
Salmenta
Leihatilan: 10,00 €


SÁBADO LARUNBATA

QUE LA MUERTE TE ACOMPAÑE

CABARET VAMPIRO (NAVARRA / NAFARROA)

60 min.

Teatro Ansoáin - 20:00 h.
Antsoaingo Antzokia - 20:00etan



¡Una vampira nos ha reunido para contarnos algo; ¿Qué puede contarnos este extraño personaje? ¿Porque quiere que le escuchemos? ¿Corremos algún peligro? Sólo ella lo sabe... Que la muerte te acompañe" es un recorrido por la vida y no-vida, una reflexión sobre lo que todavía nos queda por vivir y sobre todo, es una llamada a la diversión en boca de alguien al que le gustaría hincarnos el diente.

Banpiro emakume batek bildu gaitu eta zerbait esan nahi digu. Zer kontu ote diezaguke halako pertsonaia arraro batek? Zergatik nahi du guk bere kontakizuna entzutea? Arriskuan al gaude, ala? Berak baizik ez daki... "Que la muerte te acompañe" ibilbide bat da bizitzaz eta bizitza ezaz; oraindik ere bizitzeko daukagunaz, eta batez ere, dibertsio eta jostetarako dei bat da, hortz-haginak ederki sartu nahiko lizkigukeen baten ahoan.

JUVENIL — ADULTO

GAZTE ETA
HELDUENTZAT


DOMINGO IGANDEA

ROBANDO MAGIAS / MAGIA LAPURRA

TXALO PRODUCCIONES

60 min.

Teatro Ansoáin
17:00 primera sesión euskera
19:00 segunda sesión castellano



¡Dorleta está harta de su trabajo. Gana mucho dinero pero no le hace feliz, así que acude al teatro a hacer un casting para ayudante de mago. Parece una buena oportunidad y no quiere dejarla escapar. Txomin también va al teatro, pero no al casting, sino a trabajar. A llevarse unas cuantas cosas "prestadas" porque -¡ah, no os lo había dicho!- Txomin es ladrón. Y por último Vladimir, también va al teatro, pero ni al casting ni a robar, sino a presentar su increíble espectáculo de Magia. Allí se darán cita los tres y, a partir de entonces, nada será lo que parece y cualquier cosa podrá pasar...!!

Dorleta nazkatua dago bere lanaz. Diru asko irabazten du, baina sosak ez dio zorionik ekarri; beraz, antzokira joan eta casting bat egin du, mago laguntzaile izateko. Aukera ona dirudi, eta heldu nahi dio. Txomin ere antzokira doa, baina ez castingera, lanera baizik. Zenbait gauza "feriatzera", zeren -a, ez dizuet esan, ala? - Txomin lapurra da. Eta azkenik, Vladimir antzokira ere joanen da, baina ez castingera, ez lapurtzera, bere Magia ikuskizun ikusgarria aurkeztera baizik. Hantxe elkar topatuko dute hiruek eta, ondotik, deus ere ez da izanen dirudiena... eta edozer gauza gertatzen ahalko da!

Venta Anticipada
Aldez Aurreko
Salmenta: 4,50 €

Venta en Taquilla
Salmenta
Leihatilan: 6,00 €

MAGIA
MAGIA

Antsoaingo Antzokia
17.00 1. emanaldia euskaraz
19.00 2. emanaldia gaztelaniaz

FAMILIAR
FAMILIARENTZAT

22

CUENTA CUENTOS
(en euskera)IPUIN KONTALARIA
(euskaraz)

MIÉRCOLES ASTEAZHENA

BI GURPILEKO AMETSA

LUR USABIAGAN

17:30 De 3 a 5 años

18:15 De 6 a 12 años

EXCLUSIVAMENTE PARA NIÑOS/AS

17:30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat

18:15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat

HAURRENTZAT BAIZIK EZ

Biblioteca · 12:00 h.

Liburutegia · 12:00etan

ENTRADA LIBRE

SARRERA DOAN

24

VIERNES OSTIRALA

DESFILE CARNAVAL ESCOLAR
ESKOLAKO INAUTERI KALEJIRA

Salida: Colegio Público Ezkaba · 10:30 h.

Irteera: Ezkaba Ikastetxe Publikoa · 10:30ean

24

VIERNES OSTIRALA

BIENVENIDA AL CARNAVAL / ONGIETORRIA INAUTEARI

16:45 h.

BAJADA DEL PUEBLO VIEJO para dar la bienvenida a los carnavales. A continuación DANZAS con el grupo EGUZKI EDER en plaza Lapurbide

HERRI ZAHARRETIK JAISTEA inauteriei ongietorria emateko. Gero, EGUZKI EDER taldeak DANTZAK emanen ditu Lapurbide plazan.

25

SÁBADO LARUNBATA

DESFILE CARNAVAL
INAUTERI KALEJIRA

12:00 h. Ronda por las bajeras y sociedades. Inicio desde la sociedad Arrikulunka

14:30 h. Comida popular. En el Frontón.

18:00 h. Desfile de disfraces (desde el patio del colegio)

19:30 h. Baile de Carnaval (finalizará a las 22:00 h) En el frontón

12:00 h. Erronda etxabe eta elkarreetan barrena. Hasiera, Arrikulunka elkartean

14:30 h. Herri bazkaria. Pilotalekuan

18:00 h. Mozorro segizioa (ikastetxeko patiotik)

19:30 h. Inauterietako dantzaldia (22:00etan bukatuko da) Pilotalekuan

26

DOMINGO IGANDEA

ASTONAUTA

75 min.

ENE KANTAK (NAVARRA / NAFARROA)

Teatro Ansoáin

12:00 primera sesión

17:00 segunda sesión

19:00 tercera sesión



El planeta tierra está lleno de barbaridades: concertinas, polución, guerras,... nuestros amigos quieren mejorar este mundo y con ayuda del inseparable libro mágico, bailando, cantando y repartiendo sucesos graciosos, se dirigen a la luna en busca de soluciones.

Lur planetan barrabaskeri asko daude: kutsadura, konzertinak, gerrak... gure lagunek zerbait egin nahi dute mundua hobetzeko eta liburu magikoaren bitartez, irria hedatuz eta abestiekin dantzatzuz, ilargira doaz konponbide baten bila.

Antsoaingo Antzokia

12.00 1. emanaldia

17.00 2. emanaldia

19.00 3. emanaldia

FAMILIAR

FAMILIARENTZAT

Venta Anticipada Aldez Aurreko Salmenta: 5,00 €

Venta en Taquilla Salmenta Leihatilan: 6,50 €

MUSICAL EN
EUSHERA
MUSIHALA
EUSKARAZ